



**HERRIA**

Batzuetan harrigarritaraino. Adibidez, Alderdi berri bat eratu da euskal ezkerrean, nazionalismo/sozialismo dikotomia kaltegarriaren gaindiapena izateko asmoz. Baina, esplikazio askotan, ez zaigu esaten, asumitu nahi dutena sozialismoaren arrazoizkotasuna dela eta abertzaletasunaren arrazoizkotasuna orobat, biek dutelako beren arrazoizkotasun partziala. Ez. Elkartasun eta bake borondate onenarekin, seguruena, baina batzuek beren arrazoizkotasuna aportatu omen dute, hala esaten zaigu, "el noble ejercicio de la razón", etorkizunaren ikuspidea, zentzu progresista. Besteek? Besteek aportatu dutena fedea omen da, "la fibra de la fe", intuizioaren sakona eta historiaren zentzua.... Abandonatu nahi omen diren eskema eta klitxeen automatismoak funtzionatzen jarraitzen du funtsean, oharkabean behar bada.

Tamaina honetako gertaera politiko bat epaitzerik ez legoke esplikazio pare baten argitan, batez ere esplikazio horiek oso kojunturalak izan daitezkeenean. Baina kasik moda baten barruan gaude berriro eta sintomatikoa da. Arriskutsua ere bai, nire us-tez. Kanpaina bat bezala bait dago berriro, Orejagandik ez dakit noraino, *El País*-en eta kultur tribuna altu guztietan, Aranzadi eta Savater bezalako intelektual ezkertiarrek eta kritikoa falta gabe, Espainietako orkestra nazional osoaren sinfonia: irrazionala besterik ez dabil oraintxe Euskal Herri honetan, mitoa besterik ez dugu jaten guk, mogimendu politiko guztiak Seminarioetan asmatzen dira. Gerra aurrean baino ere gogorragoa dirudi arrazoimena eta abertzaletasuna kontrajartzeko enpeinuak.

Arrazoimena, zientzia, irekitasuna eta dialogoa, alde batetik; intolerantzia bestetik, mitoak, historiaren faltseape-nak, sentimentalismoa.

Ezin hasiko gara mitologiak eta irrazionalismoak ukatzen abertzaletasunean. Badago frango. Etsaiak etsai, zertarako ukatu? Guretzat ez dago autokritiko jarraitu beste aukerarik.

Bestetik, ordea, ikasi samarrak gaude, edo egon beharko genuke, "nazioaren superazio" (edo nazionalismoen, probintzianismoen superazio) guzti horietan ere zenbat mitologia eta irrazionalismo egon den eta dagoen behin eta berriro historian zehar: Marxenean (eta haren historiaren buru-taeran), honen aurreko internazionalismo burgesean, honen aurreko krista-uan, aurreko estoikoan, aurreko so-fistan...

Filosofiaren historiako hari nagusietako bat da internazionalismoa. Bere lehenengo gorputz doktrinala estoikoek eta sofistek eman zioten. Epikteto destaka daiteke. Diogenes, halaber, egun argitan kriselu bat eta enparantzara joan zena gizon baten bila. Baina zertarako hasiko ginatke orain doktrina horietan sortaldeko mitoen influentziak eta elementuak agertzen eta historian zehar pertsegitzen, nola jarraitzen duten, eboluzionatzen duten, internazionalismo estoikoan, kristaun, burgesean, marxistan...? Zeini aprobetxatzeko?

Problematikoak, hau da, elementu mitologiko eta irrazional askodunak, biak dira, nazionalismoa eta internazionalismoa. Baina onartu ere, ez zaigu inori burutik pasa, ez bata eta ez bestea, problematiko ez zirelako onartzea. Hori dogmazalearentzat uzten dugu.

Sofistak baino lehenago, aurreko internazionalista historian, Anaxagora izan zen, Klazomeneko desterratu, Atenastik ere desterratu gero. Parabola bizi bat, internazionalismoaren historia guztirako. Zientzifikoa eta materialista, arrazionalista porrokatua: ironia bategatik, bera da filosofiaren "paradojak"... Arrazionalismoa, izan ere, gizonaren historian, ez da inoiz pasatzen intento bat eta entsegu bat izatetik. Gizona, bere gutxian, bere arrazoimena baino gehiago bait da halere.

"Baina hiri ez al zaik axola aberria?" galdetuz gero, "hago isilik, aberria niri ere axola zaidak" erantzuten omen zuen Anaxagorak, behatzarekin zerua seinatatzuz. Zientzietarako gizona zen, ez hiri honetaz edo hartaz arduratzekoa. Zerua eta kosmo osoaren ordenu zoragarria kontenplatzeko sortua zela bera, aitortzen omen zuen.

Bazihoan behin Tales zaharra, Miletoko jakintsua, begi biak zeruan josita, lurraz ahazturik. Eta braust!, potzu batetara jausi zen muturrez aurrera: "hainbeste zeruetara begira, ez duzu ikusten oinen azpian daukazuna!", burlatu zitzaion bere Trakiako eskklaba neskatoa.

Horixe da gizonaren komeria eta filosofia guztia, bere nazionalismoak eta internazionalismoak: ideal zerutarren eta errealtate guztiz lurtarren artean, ezin asmatu nola ibili historian, izaterretara begira bai, baina eduki bere gainean gauzkan lurtxoan estrapuzo egin eta erori gabe. Eta, historian zehar, monopolio zailen-zailena arrazoizkotasunaren monopolioa gertatzen da.

# INTERNAZIO- NALISTA GUZTIZ ARRAZOIZKOAK

Joxe AZURMENDI

Dogma zahar baten indar astu-narekin jarraitzen du beti ere gure artean berdinketa modu klasiko hark: internazionalismoa berdin zientzia, nazionalismoa berdin irrazionaleria. "Internazionalistak" zientzifikoak dira. Nazionalistak sentimentalak, akritikoak, mitologizaleak (azken aldian, gainera, viszeralak, etab., dotorezia gehiago).